

URTEKO BOSGARREN IGANDEA B

Lehen irakurgaia

(*Oinazetan den gizonaren deiadarra*)

Joben liburutik 7, 1-4 . 6-7

Job hunela mintzatu zen:

- 1 “ Zinez, borroka da gizakiaren bizia lurrean,
langilearenak bezalakoak haren egunak.
- 2 Esklaboa itzal-gose den bezala,
eta langilea lan-sariaren beha bezala,
- 3 irabazirik gabeko hilabeteak iragan ditut,
eta sofrikariozko gauak ukan .
- 4 **Oheratu orduko, erraiten diot nere buruari:**
“ Noiz jeikiko ote naiz?”
Gauak ez du burutzerik, amesgaixtoz betea, goizeraino.
- 6 Ehuleen tuta baino arinago doaz nere egunak,
eta bururatzen dira haria eskasten denean.
- 7 **Orroit zaite, Jauna, nere bizia hats bat dela,
nere begiek ez dutela berriz zoriona ikusiko.”**

Mendeak jin mendeak joan, oihu bat : bere gorputzean, bere ariman urratua den gizakiarena; erantzunik gabe eta zorigaitzpean dagon gizadiaren oihua. Joben liburua, oihu hori da. Ez du ixtorio bat kondatzen, zuhurtziazko liburua da. Job, asmatu gizon bat da, bainan egiazki holako jendeak miliunka badira. Job, oinazetan den jendea da, beraz, goiz edo berant, gutarik bakotxa. Dela ospitaletan, beldur edo bakardadean; dela miseria gorrian edo gerlaren bortizkerian, oinazetan denak hitz berak erran lezazke eta oihu min hauek berak egin.

Job, edozoin da beraz. Ahatik nehork ez du hoinbertze zorion eta hoinbertze zorigaitz ukan. Ipuina iduri hasten da : Bazen Jordanian Job izeneko gizon bat. Dena ontasun eta zorion, laminek haren seaska inguratu bazuten bezala. Fededun baitzen bazakien Jainkoak eta Jainkoak bakarrik ziola dena eman : haren emaztea eta haurrak, eder, airos, argi eta elgarrekin ongi etorriak. Bera jendetasunez betea, oso errespetatua eta aholkulari ezin hobea. Haren aberastasun harrigarria Ekialde guzian denek ezagutua. Eta oroz gainetik, osasun ona.

Bainan egun batez, dena funditzen da. Joben fedea zorigaitzari ez ziola gogor eginen erran zen: gizon zuzena Job, segur, bainan merezimendu gabekoa, bere bizi osoa hain errexa izanik; orai ikusi behar, arantzekin zer eginen duen. Zorigaitzak etorri dira, bat bertzea baino haundiagoak; makur guziek lehertu dute. Azkenean deusik gabe gelditu zen : ez familiarik, ez etxerik, ez haurrik, ez ontasunik, ez osasunik, ez indarrik; gorputz guzia zauri, denetaz haizatua. Gauza bat bazuen: emaztearen trufak, jenden laidoak, haurren erasoak.

Erran bezala gertatu da. Ikusiko zer ikusiko, erran zen, eta ikusi da... bainan ez batere pentsatu zena. Job itxaropenez beteko gizona da eta haren itxaropena : atxik, atxik. Igurikatzen du, eta zuzentasuna du igurikatzen. Gertatzen zaiona, ez baita zuzena. Eta mintzo da: bizi baita, eta hitza bere baitu. Eta mintzo ahal guzietz, oihu, nigar, garrasi. Eta mintzazea manatzen dio Jainkoari : « *Oihuz nago eta zu ixilik* », eta bere laguneri: « *entzun ontsa nik errana, emadazue kontsolamendu hori ...ixilik egon bazinezte, orduan bai zuek zuhur.* » (Jb 21,2; 13,5)

Jainkoa agertu arte ez da ixilduko; dohakabeen oihua entzuten du. Jobek badaki Jainkoak entzuten duela eta agertuko zaiola. Azkenean, haren iraupena saristatua da: Jainkoa agertzen zaio, Jainkoa mintzo zaio. Eta orduan da Job ixiltzen, orduan lasaitzen.

Ixtorio hunen erakaspena ? Jainkoak ez du gure kantiken musika goxoa bakarrik maite. Dohakabeen oihuak entzuten ditu eta onartzen. Bainan hori ez zauku aski. Zertako sofrikarioa ? Nundik heldu da ? Nork

igortzen dauku ? Eta zergatik Jainkoaren ixiltasuna ? Hitz miragarriez denak salatzen ditu eta dagokion zuzengabekeria errepikatzen.

Lagunek aldiz, beren argitasun eta gogoetak ateratzen dituzte, orain ere entzuten direnak:

- sofrikarioa, Jainkoaren gaztigua. Gaztigua, bekatuaren ondorioa; eta Jobek ezetz, ez duela bekatu egin. Eta lagunek berriz : bi aldiz gaztigatua: bekatua egin eta gero hura uka ! Aski errana baita: onak saristatuak eta gaixtoak gaztigatuak!
- Sofrikarioa, bertutea ikasteko bidea, edo bertzela erraiteko: ongi maitatua, ongi gaztigatua. Adibidez, lagun batek dio: « *Dohatsua Jainkoak zentzutzen duena! Ez mespretxa Ahaltsuaren heziketa. Harek du zauritzen, eta harek zauria lotzen; harek jotzen eta haren eskuek sendatzen.* » (Jb 5,17-18)

Liburu osoan zehar, Jobek arrazoin ahul horiek deusezten ditu. Bere bakardadean botatzen zaion deusetako elasturi hori geldi dadin nahi luke, eta Jainkoa zuzena dela errepikatzen du. Berak bide ederra eginen du: liburuaren hastapenean, beti eta beti errepikatzen du: « Ez dut bekatu egin! Jasaiten dutana ez da zuzen », eta bere lagunen logika berean dela ez da ohartzen. Eta pittaka pittaka, bere biziaren esperientzia heldu zaio gogorat: ez ote ditu ainitz gaixtagin uros bizitzen ikusi ? eta ainitz jende xuxen eta hobengabe infernuko biziaren jasaiten? Ez, ez da zuzentasunik.

Azkenean Jainkoa mintzaten zaio : ez du Job erasiatzen, haren lagunen arrazoinak ditu deuseztatzen . Dio: « *Job bakarrik da nitaz ongi mintzatu.* » Erran nahi baita, oihu egitea, jazartzea, xuxen dela. Gero Kreazionearen mirestera eta bere jakingabearen aitortzera gomitatzen du Job. Aita batek bere haurrari erakasten dion bezala, goxoki bainan fermuki, Jainkoak dio: « *nere gogoetak ez dira zuenak.* » Haren zuzentasuna ez baita gurea, ez dugu haren kontra egiterik. Job gizon zuzenk, ongi ulertzen du erakaspena; aitortzen du: « *Jakin gabe mintzatu naiz konprenitzen ez ditutan misterioez... Ni ez naiz on, zer ihardetsiko dauzut ?* » (Jb 42,3; 40,4)

Bururatzean, Joben liburuak ez du sofrikarioari argitasunik ekartzen. Bainan bidea erakusten dauku. Geure oihuak ez ixil, bainan konfiantza atxik eta Jainkoaren eskua tinka, gurekin baitago munduak dirauno. Claudel-ek dion bezala: « Jesus ez da sofrikarioaren esplikatzera etorri bainan hartan bizitzera. »

Salmoa 146

Leloa : *Mundu guziak Jaunari kantu,
bihotz hautsiak sendatzen ditu!*

**Aipa Jainkoa, ona baita:
Hain baita gozo, hari kanta!
Bihotz hautsiak piztu ditu,
Eta zauriak berak lotu.**

**Zenbat izar den kondu baitu,
Beren izenaz deitzen ditu.
Handia Jauna, izigarri,
Zuhurtasunaz ezin neurri.**

**Apalak ditu xut ezarri,
Buru harroak hits igorri.
Kanta Jaunari denek betan
Hari eskerrak soinu eman!**

Bertso hauek Jainkoa ospatzen dute, bere herria libratu baitu. « *Aipa Jainkoa, ona baita: hain baita gozo, hari kanta!* » eta gaur ez da alferretan irakurtzen : lehen irakurgaiari oihartzun egiten dio. Ondoko bertsoek diote: « *bihotz hautsiak piztu ditu eta zauriak berak lotu* ». Bai, egiaz, Job bihotz hautsia zagon: ezin konprenituzko sofrikariotan. Bihozminaren erdian, hor dugu Joben iraupena, haren ausartzia haundia Jainkoari mintzatzeko. Eta oren buru, aurkitzen duena ez da mirakuiluzko sendagailu zenbait, bainan Jainkoa bera bere ondo ondoan.

Salmoak diolarik : « *bihotz hautsiak piztu ditu, eta zauriak berak lotu* » bihotzaz da mintzo, ez eta gorputzaz. Jainkoaren hurbiltasuna jende umilen ondoan Testamendu Zaharraren aurkikuntza haundienetarik da : geroztik, jendea ez da bakarrik bere atsegabe eta biziko makurrekin. Hemen aipatu bihotz hautsiak, Jerusalemetik Babiloniarat Nabukodonosorek erbesteratu juduak daitezke. Salmo hunen hastapena heietaz da mintzo : « *Jaunak du Jerusaleme eraikitzen, Israelgo erbesteratuak biltzen* ». Hastapeneko lehen bertsuak hauek dira: « *Alleluia! Bai eder, gure Jainkoa kantuz ospatzea, bai gozo, haren gorestea! Jaunak*

du Jerusalem eraikitzen, Israelgo erbesteratuak biltzen. Bihotz hautsiak sendatzen, heien zauriak lotzen. »

Babiloniako desterruaren bururatzean, Alleluia hunek askatasuna ederki erraiten du. Etxeratzea, politikazko askatasuna da, eta oroz gainera izpiritual askatasuna: desterruan zagolarik, herriak bere ixtoria ber-irakurtu du eta bere gogoetak egin; profetek aitzinetik mezutua zuten: zorigaitza, ez bazirezte bihozberitzen; eta Nabukodonosoren bitartez, zorigaitza etorri zen. Etxeratzeak, Jerusalem eraikitzeak etorkizun berri bat idekitzen du : Jainkoak barkatu du. Lur Saindurat berriz etorririk, saindutasunean bizi nahi dute.

Ondoko bertsoek ez dute bertzerik erraiten: « *Izarrak ditu kondatzen eta bakotxa bere izenez deitzen.* » Kreazionea aipatzen da; fedearen lehen urratsa Izraelentzat hau da : « Jainko askatzailean sinesten dut », eta bigarrena « Jainko kreatorailean sinesten dut ». Kreatorailearen baitan sinestea, Egiptotik libratu esperiantziaren bidez eta bertze askatze guzien bitartez bizi du Izraelek : kreazionearen Jainkoa bere boterean laudatua da, bainan oroz gainera, bere jende guzien maitasunean. Izrael izarrez mintzo delarik, Abrahameri egin agintza du gogoratzen : Abrahamek izar bezainbat ondoko izanen duela !

Bigarren irakurgaia

(Apostolua osoki eta deneri emana)

Jondoni Paulok Korintiarreri 9, 16-19 . 22-23

Haurrideak,

- 16 Ebanjelioa iragarri dutala, ez dut zeren espantu egin,
nere egin beharra baitut nik hori;
zorigaitz neri, Ebanjelioa iragar ez baneza!**
- 17 Nere baitarik ari banintz, mereziko nuke saria.**
- 18 Bainan ez naiz nere baitarik ari,
Jaunaganik ukan dutan kargua dut betetzen.
Zer sari zor zait orduan?
Hau bakarrik: Ebanjelioa urririk iragartzea,
Ebanjelioak eman eskubideez baliatu gabe.**
- 19 Guzietarik libre izanagatik, guzien esklabo egin naiz,
ahalik eta jende gehiena Kristorentzat irabazteko.**
- 22 Ahul direnekin ahul egin naiz, ahulen irabazteko.
Guziekin guziekilako egin naiz, nolazpait batzuren salbatzeko.**
- 23 Eta hori guzia Ebanjelioarengatik egiten dut,
nihaurek ere salbamenduan parte izan dezadan.**

Bere gutunetan, nola esku lanetan artzen den bertzeen bizkar ez bizitzeko, Jondoni Paulok frangotan errepikatzen du, iduriz urgullu pixka batekin. Eta iduri du, Korintoko elizan, kontrakoe hor aurkitu dutela gaia: Paulok ez badu diru-saririk nahi, egiazko apostolua ote da orduan ? Hemen, Jondoni Paulok bere jokamoldea erraiten du xeheki. Urririk ari da, bere buruaz griñarik gabe baita. Ebanjelioaren mezutzea ez da haren ogibidea; ez du beraz lan-saririk. Eman zaion misioa da, eta horrek azkatasunez betetzen du.

« *Berrionaren mezutzea, nere eginbeharra da.* » Ez du hautatu. Judu kartsuaren, jakintsuna, farisaua. Bere kartsutasunak berriki girixtinotua pertsegitu ditu. Eta betbetan denak aldatu dira: bihozberitu da eta bere karra Berrionaren zerbitzuan eman du. Harentzat, girixtino izaitea, apostolu izaitea eta predikatzea doakion manamendua da. Jainkoak deituz geroz, bertzeentzat ari da, pagano deitzen dituenentzat. Galaziarreri igorri gutunean erraiten du: « *Bainan Jainkoak, sortu baino lehen hautatu eta bere onginahiatz dei egin zautanak, gogoko ukan zuen bere Semea neri agertzea, hunen berriona paganoeri adiaraz niezoten. Nik orduan ez nion nehoi kontseilurik eskatu, ... berehala joan nintzen.* » (Ga 1,15)

Nolaz ez pentsa profeta batzuen bokazioneari ? Amos, eman dezagun: « *Ni ez naiz profeta, ez eta profeta-taldekidea. Abeltzaina naiz eta basapiku-biltzailea. Bainan Jaunak abereen gibeletik hartu nau eta bere herri Izraeli bere mezuaeren emaitera igorri* » (Am 7,14). Edo Jeremias: « *Hunela mintzatu zitzaitan Jauna: amaren sabelean moldatu aitzin hautatu zintutan; sabeletik atera aitzin sagaratu zintutan eta profeta*

izendatu nazioneentzat. » (Jr 1,4-5) Profeta beti bertzentzat da. Marken ebanjelioan, Jesusek argi erraiten du Berrionaren mezutzerat etorri dela.

Paulok ere zoriona eta saria hor ditu : bere eginbeharra eginez. Predikuak ez ditu saltzen. Manua du betetzen: « *Nere eginbeharra da... nihaurek hautatu banu... bainan emana zaitan karguaren betetzen ari naiz* ». Azken hitz hauek esklaboentzat erabiltzen ziren; beraz erran ginezake : hori nihaurek hautatu banu, saria mereziko nuke; bainan, egiaz, Jainkoaren esklabo nago eta esklaboa ez da sariztatua, jakina den bezala. Bainan ene saria haundia da, zeren ospe haundia eta zoriona baita Berrionaren mezutzea: saririk ez ukaitea, hori da ene saria!

Ebanjelioa

*Alleluia, alleluia
Jesusek gure ahuleziak hartu ditu
Eta gure gaitzak ereman*

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik 1, 29-39

- 29 **Kafarnaumeko zinagogatik ateratzean,
Jesus Simun eta Andresen etxerat joan zen, Jakobe eta Joanirekin.**
- 30 **Simunen amaginarreba ohean zagon sukarrarekin.
Berehala, hartaz hitz egin zioten Jesusi.**
- 31 **Hurbildurik, Jesusek eskutik hartu eta jeikiarazi zuen.
Sukarrak utzi zuen, eta zerbitzatzen hasi zitzaioten.**
- 32 **Arratsean, iguzkia sartu ondoan,
eri eta debrudun guziak ekarri ziozkaten Jesusi.**
- 33 **Herri guzia ate aitzinean bildua zagon.**
- 34 **Eri ainitz sendatu zituen edozein gaitzetakoak,
eta debru ainitz haizatu.**
- 35 **Ez zituen debruak mintzatzera uzten,
baitzakiten heiek nor zen.
Goizean goiz, oraino ilun zelarik, Jesus jeiki zen.
Herritik atera zen eta bazterleku baterat joan : han otoitzean ari zen.**
- 36 **Simun eta haren lagunak Jesusen bila hasi ziren.**
- 37 **Aurkitu zutenean, erran zioten:
“ Denak zure bila dabilta.”**
- 38 **Bainan Jesusek ihardesten diote:
“ Goazen beste norapait, inguruko herrietarat,
horietan ere Berri Ona oihuka dezadan, hortarako atera bainaiz.**
- 39 **Galilea guzian barna ibili zen,
heien zinagogetan Berri Onaren predikatzen
eta debruen haizatzen.**

Iduri du kasetari baten artikulua : noiz, nor, nola, argitasun guziak hor dira. Bainan apostoluak ez ziren berriketariak. Beraz, hainbertze xehetasun emanik, lerro hauek badukete bertze helbururik.

Markek Galilearat geramatza, Kafarnaum herrirat : Goiz bat, arrats bat, eta larunbat biharamuna aipu dira. Juduentzat, egun bat ez da gauerditik gauerdiraino, bainan iguzki sartzetik iguzki sartzetaino. Larunbata (edo Xabat) ostirale arratsean, iguzki sartzean hasten da eta larunbat arratsean, lehen izarrak agertzean bururatzen. Larunbata Sinagogan edo etxean Idatzi Sainduen irakurtzeko eta otoitz egiteko eguna da. Horrengatik dituzte, Kafarnaumeko jendeek, beren eriak iguzkia sartu ondoan Jesusi ekartzen. Markek dio: « *Arratsean, iguzkia sartu ondoan, eri eta debrudun guziak ekarri ziozkaten Jesusi.* »

Egun hartan, Jesusek gauza bat baizik ez du egin: herriko sinagogarat joan eta handik atera bezain laster etxerat itzuli. Jesus Legean zintzo dabilala erakusten du Markek. Goizean, sinagogan, « *izpiritu gaixto batek hartu gizon bat* » libratu du, eta Jesusek izpiritu gaixtoeri manatzen diotelako berria ximixta bezala zabaldu da. Arratsean, larunbata bururatu ondoan, eri eta debrudun guziak ekarri ziozkatela, ez da beraz

harritzekorik. Erran dezakegu Markek jadanik salatzen duela: Huna Mesias, Erreinua mezutu eta eraikitzen duena.

Harritzekoa dena, debruek Jesus nor den badakitela. Baina Jesusek ez ditu mintzatzera uzten: « *Eri ainitz sendatu zituen, edozein gaitzetakoak, eta debru ainitz haizatu ere. Ez zituen debruak mintzatzera uzten, nor zen baitzakiten.* » Jesusek zergatik ixilarazten ditu debruak ? Bera ez da gordetzeko etorri. Baina holako Berri baten entzuteko, Kafarnaumeko jendeak ez zitezkeen prest : Kristo nor den egiazki aurkitzeko badute bide egitekorik. « Jainkoaren Saindua » erraitea ez da aski, hori izpiritu gaixtoek ere badakite. Eriek Jesus ikusi nahi dute, baina fededun izaiteko prest ote dira ? Hemen dugu mirakuiluen bikoiztasuna: sendatua joaitea Jainkoa aurkitu gabe ! Eta Petrik, Jesus atxiki nahiz, diolarik: « *Denak zure bila dabiltza* », Jesusek bere bidean ezartzen du : « *Goazen bertze norapait, inguruko herrietarat, horietan ere berriona oihuka dezadan, hortarako atera bainaiz* ». Jesusek ez du sekulan erran: « *Mirakuilu egitera etorria naiz* », baina Berrionaren mezutzerat: « *Jainkoaren erreinua hurbil duzue* ». Jainkoaren erreinua gure artean delako seinalea dira mirakuiluak; bakarrik harrigarriko zerbait ikustea, hor da arriskua.

Markek gertakariak biziki xeheki erraiten ditu: « *Goizean goizik, oraino ilun zelarik, Jesus jeiki zen. Herritik atera zen eta bazterleku baterat joan: han otoitzean ari zen.* » Zertako hoinbertze xehetasun ? Larunbat goizean, Jesusek eri bat eskutik hartu eta xutiarazi du ; ondoko gauean, asteko lehen eguneko goizaldean (Juduen astearen arabera), bere Aita kaustitzeko otoitzaren bidez, basamorturat doa. Zenbait hilabeteren buruan, asteko lehen egunaren gauean, bere Aitak piztuko du. Bertze ohar bat: basamorturat doa bere Aitaren aurkitzeko; eta itzuli bezain laster dizipulueri erraiten diote : « *goazen* ». Otoitzak bultza ote dezake? Ixiltasunean eta bakardadean egoiteak ez du haren karra ahultzen, baina bai bultzatzen. Hautua ez da otoitza edo egintza ; biak lotuak dira. Ez da otoitzik egintzarik gabe ez eta egintzarik otoitzik gabe.

Jesusek egin sendatzeek sofrikarioari buruzko gure solasak aldatu behar lituzkete. Jesusek eriak sendatu ditu, eritasuna gaitza delakotz. Sendatu eta ber denboran Erreinua oihukatzen du, gaitza Jainkoaren xedearen kontra doalakotz eta kanporat bota behar dugulakotz. Lehen irakurgaietan Job entzun dugu bere oinazearen oihukatzen eta liburu bururatzean Jainkoak oihu hori onartzen duela ikusi dugu. Sofrikarioa beti gaitza da, eta behar da salatu. Eri den jendeari, « gertatzen zazu ongi da » erraitea erokeria litaik. Batzuk, Jainkoaren graziarekin, beren oinazeek haunditzen dituzte, baina sofrikarioa beti gaitz. Minen eta oinazeen kontra egiten ditugun indar guziek Jainkoaren xedea gauzatzen dute. Jainkoak jendeak salbatzen ditu eta ez gorputzik gabeko arimak. Ebanjelioaren predikatzea ez da bakarrik adimenduari hitzak erraitea; jendea sofriarazten duen guziaren kontra borrokatzea ere da.

Hain xuxen, Jainkoaren xedea nigarririk gabeko mundu berri baten eraikitzea da : « *Hara, zeru berria eta lur berria kreatuko ditut...Han ez da gehiago entzunen nigar-hotsik, ez oihurik. Han ez da izanen sortu orduko hilen denik, ez eta bere adin betera helduko ez denik... Nere mendi saindu osoan nehork ez du kalterik, ez hondamenik egingen. Jaunak erran du.* » (Is 65,17...) Eta Apokalipsia liburuak dio: « *Heien begietako nigarrak xukatuko ditu, eta ez da gehiago heriotzerik izanen, ez dolurik, ez oihurik, ez oinazerik, lehengo mundua itzalia baita. Eta tronuan jarririk zagonak erran zuen : « Hara, gauza guziak berri egiten ditut » (Ap 21,4)*